

## ARIKETAK

- 1 Izan gogoan *Idazkiak* atalean azaldutakoak, eta saiatu idazki honen diseinua hobetzen; horretarako euskara nabarmendu beharko duzu eta datu komunak, ahal dela, behin jarri:

**BAZKALEKU AMANKOMUNEN  
ERABILPENERAKO SEGURTAGIRIA**  
*ATTESTATION DE PATURAGE COLLECTIFS*

Nik, **Bernadette Mendiboure-k**,  
Jutsiko auzapezak ziurtatzen dut:

Je soussignée, **Bernadette Mendiboure**,  
Maire de Juxue atteste que :

**Xavier AZKAINE** jaunak

Monsieur **Xavier AZKAINE**

Jutsiko bazkaleku amankomunak erabil-  
tzen dituela ondoko ardi-aziendarentzat:

Utilise les pacages collectifs de la com-  
mune de Juxue pour le cheptel suivant :

**95 ardi.**

**95 ovins.**

**180 egunez.**

Pendant **180 jours.**

Jutsin egina, .....

Fait à Juxue, le.....

Auzapeza,  
**B. MENDIBOURE**

Le Maire,  
**B. MENDIBOURE**

- 2 Esaldi batzuk zuzenak dira eta beste batzuk ez. Zuzendu:

1. Zeinen erraz igarotzen diren batzuk zuritik beltzera, eta alderantziz!
2. Zenbat eraikuntza ez dira ote hondatu, hutsik gelditu eta inork ez konpontzeagatik!
3. Belgikako Gobernuak larrialdietarako bilera bat egin zuen, ministroak Italiako oporraldia eten zuelarik.
4. Eta azkenean, nahi zuena lortzen zuelarik, jota bat kantatzen zuen.
5. Zein hitz ederrez mintzo da Administrazioa sarri askotan!
6. Ezin esan zer nolako atsekabea eragin dit hilabeteko lana alferrikoa dela jakiteak!
7. Gizaki batzuek, beren lanaren indarra eta kemena dela medio, emailtza hobeak ateratzen dituzte.
8. Dirua itzuliko dute, bai, baina bitartean horren kontura zenbat ez ote dute irabazil

# A R I K E T A K

9. Hara! Mendia datorkigu gainera –esan zuen txoferrak–, egundoko harriak errepidera erortzen ikusi zituelarik.
10. Eta berehala kezka eta egonezina nagusitu dira gure artean.
11. Egunaren lehenengo partean izozte ahul-ertainak izango dira ekialdeko haizea ibiliko delarik.
12. Ez ote zuen, bada, sala hark erakusten, hasteko, aitaren boterea eta ahala?
13. Nahi nuke garai latz haietaz ahaz nendin.
14. San Andres jaiak ospatuko dira ostiraletik asteartera, musika eta kirola protagonista izango direlarik.
15. 25 urte bete direlarik, belaunaldi gazteak hartu du antolaketa lanaren ardura.
16. Dolua eta haserrea zituzten begietan taxilariaren lankideek, ordu batzuk lehenago berrogei urteko lankidea erahil baitzuten.
17. Irakasleen nahia da ikasleek biharko amai dezaten.

## 3 Berridatzi

1. Biziberritze Plan Nagusiak sei urteko ibilbidea egina du eta une egokia da egindakoaz eta eginkizun dugunaz gogoeta egiteko.  
\_\_\_\_\_-(e)larik, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_
2. Gaixo dago: bizitzak biguina eragingo balio bezala: munduari oka egiteko gogoa.  
\_\_\_\_\_ eta nazka \_\_\_\_\_
3. Behar dugun guztia badaukagu, zergatik aspertzen gara? Azken batean, zer da aspertzea, egitekorik ez edukitzea ala egiteko dagoena egin nahi ez izatea?  
\_\_\_\_\_ ote \_\_\_\_\_  
ote \_\_\_\_\_
4. Pozik bizi gara, baina oraindik ere, atzera begiratzen dugunean, izaten ditugu sesio txikiren batzuk.  
\_\_\_\_\_-(e)larik \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

## 4 Esaldiak osotu *arazi* erabilita:

1. Jantokiko zaintzaileak umeari den-dena (jan) \_\_\_\_\_
2. Idazkariak Unairi inprimakia (bete) \_\_\_\_\_
3. Soinetako irakasleak guri txandal berria (erosi) \_\_\_\_\_
4. Nagusiak gu bilera-gelan (sartu) \_\_\_\_\_
5. Lankidea garaiz ez agertzeak ni (haserretu) \_\_\_\_\_
6. Sutea zegoela eta, Lakuako langile guztiak kanpora (atera) \_\_\_\_\_
7. Kontua di-da batean egin behar zela-eta, zuzendariak gu Madriletik (etorri) \_\_\_\_\_
8. Josebak guri testu biak (zuzendu) \_\_\_\_\_
9. Zinegotzia protesta batean hasi zen, baina Alkateak berehala (isildu) \_\_\_\_\_
10. Hasieran bestela uste banuen ere, lankideek iritzia (aldatu) \_\_\_\_\_

# ARIKETAK

## 5 Berridatzi arazi erabilia

1. Gaur, nahigabeak eta tristurak harrapatu gaituelarik, senideen eta lagunen ondoan egon nahi dugu eta gure dolimina helarazi.

\_\_\_\_\_ honetan, \_\_\_\_\_  
\_\_\_\_\_

2. Garai hartan nahaste-borraste askotan nenbilen eta horietako batek zure ondotik urruntzera behartu ninduen.

\_\_\_\_\_ urrunarazi \_\_\_\_\_

3. Gorritu egin zen eta lotsa horren bidez hitzen benetako esanahia asmatu nuen.

\_\_\_\_\_ asmarazi \_\_\_\_\_

4. Lege unibertzala da hori: jarri saski batean sagar sano batzuk eta ustel bakar bat: sanoek, gehiago izanik ere, ez dute saneatuko ustela: sanoak ustelduko dira.

\_\_\_\_\_ : ustelak ustelaraziko \_\_\_\_\_

5. Uniformea jantzi behar izaten dute denda handietako langileek.

\_\_\_\_\_ langileei.

6. Horrelako hotza egiten jarraitzen badu, tapaboka lodiagoa jantziko diogu haurrari.

\_\_\_\_\_ , amonak \_\_\_\_\_

# SOLUZIOAK

## 1 Idazkiak

**SEGURTAGIRIA**

**BAZKALEKU AMANKOMUNEN ERABILPENA**  
**ATTESTATION DE PATURAGE COLLECTIFS**

MONSIEUR **XAVIER AZKAINÉ JAUNAK**

Jutsiko bazkaleku amankomunak erabiltzen ditu ondoko gisan: Utilise les pacages collectifs de la commune de Juxue pour le cheptel suivant :

Ardi-azienda / Ovins 95  
Egunak / Jours 180

Eta honela jasotzen dut segurtagiri honetan. On délivre ce certificat-ci aux effets opportuns.

  
Bernadette Mendiboure  
Auzapeza

Jutsi, 2005eko urriaren 11

# SOLUZIOAK

## 2 Esaldi batzuk zuzenak dira eta beste batzuk ez. Zuzendu:

1. Ondo
2. Txarto  
Zenbat eraikuntza **ez ote dire(n)** hondatu, hutsik gelditu eta inork ez konpontzeagatik!
3. Txarto  
Belgikako Gobernuak larrialdietarako bilera bat egin zuen, **eta horretarako** ministroak Italiako oporraldia **eten behar izan zuen**.
4. Ondo
5. Txarto.  
Zein hitz ederrez mintzo **den** Administrazioa sarri askotan!
6. Txarto  
Ezin esan zer nolako atsekabea eragin **didan** hilabete-ko lana alferrikoa dela jakiteak!
7. Ondo
8. Ondo
9. Ondo
10. Ondo
11. Txarto  
Egunaren lehenengo partean izozte ahul-ertainak izango dira, **eta** ekialdeko haizea **ibiliko da**.
12. Ondo
13. Txarto.  
Nahi nuke garai latz haietaz ahaztu.
14. Txarto  
San Andres jaiak ospatuko dira ostiraletik asteartera, **eta** musika eta kirola protagonista **izango dira**.  
San Andres jaiak **ospatuko ditugu** ostiraletik asteartera, **eta** protagonista **nagusi musika eta kirola izango dira**.
15. Ondo
16. Ondo
17. Ondo

## 3 Berridatzi:

1. Biziberritze Plan Nagusiak sei urteko ibilbidea egina **duelarik**, une egokia da egindakoaz eta eginkizun dugunaz gogoeta egiteko.
2. Gaixo dago: bizitzak **higuina eta nazka eragingo balio** bezala: munduari oka egiteko gogoa.
3. Behar dugun guztia badaukagu, zergatik aspertzen **ote** gara? Azken batean, zer **ote** da aspertzea, egitekorik ez edukitzea ala egiteko dagoena egin nahi ez izatea?
4. Pozik bizi gara, baina oraindik ere, atzera begiratzen **dugularik**, izaten ditugu sesio txikiren batzuk.

## 4 Esaldiak osotu *arazi* erabilia:

1. Jantokiko zaintzaileak umeari den-dena **janarazi zion**.
2. Idazkariak Unairi inprimakia **betearazi zion**.
3. Soinketako irakasleak guri txandal berria **erosarazi zigun**.
4. Nagusiak gu bilera-gelan **sarrarazi gintuen**.
5. Lankidea garaiz ez agertzeak ni **haserrarazi ninduen**.
6. Sutea zegoela eta, Lakuako langile guztiak kanpora **aterarazi gintuzten**.
7. Kontua di-da batean egin behar zela-eta, zuzendariak gu Madriletik **etorrarazi gintuen**.
8. Josebak guri festu biak **zuzenarazi zizkigun**.
9. Zinegotzia protesta batean hasi zen, baina Alkateak berehala **isilarazi zuen**.
10. Hasieran bestela uste banuen ere, lankideek iritzia **aldarazi didate**.

## 5 Berridatzi *arazi* erabilia:

1. Gaur, nahigabeak eta tristurak harrapatu **gaituen honetan**, senideen eta lagunuen ondoan egon nahi dugu eta gure dolu-mina **helarazi**.
2. Garai hartan nahaste-borraste askotan nenbilen eta horietako batek zure ondotik **urrunarazi ninduen**.
3. Gorritu egin zen eta **lotsa horrek** hitzen benetako esanahia **asmarazi zidan**.
4. Lege unibertsoa da hori: jarri saski batean sagar sano batzuk eta ustel bakar bat: sanoek, gehiago izanik ere, ez dute saneatuko ustela: **ustelak ustelaraziko ditu sanoak**.
5. Uniformea **jantzarazten diete** denda handietako langileei.
6. Horrelako hotza egiten jarraitzen badu, amonak tapaboka lodiagoa **jantzaraziko digu** (haurrari).